

25 URTE AÑOS

dFERIA 2019

BOTEREA EL PODER

MARTXOA 11–14 MARZO
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

Antolatzaileak / Organizador

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia kultura

Laguntzaileak / Colaboradores

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

KULTURA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Sanidad
Gobernación
Universidades

inaem

Babesleak / Patrocinadores

kutxa

fundación ibae fundazioa

IBERESCENA

AC/E

cofae

BALLET

eszena

REDELAE

dFERIAk 25 urte

25 aniversario dFERIA

9

SHARING HOME

DENIS SANTACANA

Gazteszena (Egia) | 20.00 | Estreinaldia / Estreno | 60 min | Dantza

Sharing Home gune ezegonkor bat da, non paretak garden bihurtzen baitira, eta hormak edo negoziatu edo inposatu egiten baitira. Mundu fisikoaren eta ideien munduaren arteko leku bat, non dena ez baita dirudiena, ez eta dirudiena izan behar lukeena ere. Burugabekeria arrazoizko baten eta ezin konta ahala arrazoi burugaberen artean, bertsotan biluzteko eta eroei dantzara irteten uzteko.

Sharing Home es un espacio inestable, donde las paredes se vuelven transparentes y los muros se negocian o se imponen. Un lugar a mitad de camino entre el mundo físico y el mundo de las ideas, donde ni todo es lo que parece ser, ni lo que se es parece ser lo que debería. Entre un disparate racionado, y un sin fin de razones disparatadas para desnudarse en verso y dejar salir a bailar a los locos.

LOS CUERNOS DE DON FRIOLERA

MORFEO TEATRO

Antzoki Zaharra- Fundación SGAE Gunea | 20:00 | 100 min |Castellano | Antzerkia / Teatro

XX. mendearen hasierako Espainia ageri zaigu esperpento jostagarri honetan, non Valle-Inclánek "adarrak" direla-eta galdutako ohorearen aurreiritzi moralak kritikatzen baititu. Bere pertsonaiez eta haien jokamolde sainetezkoaz trufatzeko asmoa hartzen du, bai eta lortu ere, parodia satiriko honetan, zeinak barre-zantzo ankerrak eragiten baititu espainiarren tradizio matxistaren gainean.

Este divertido esperpento retrata una España de principios del siglo XX en la que Valle critica los prejuicios morales de la pérdida del honor por "los cuernos"; por eso pretende, y logra con suma ironía, burlarse de sus personajes y de sus comportamientos de folletín sainetero, en una parodia satírica, que provoca risas crueles y desatadas sobre la tradición machista de los españoles.

10

MACBETH
ARRIAGA ANTZOKIA
Victoria Eugenia Antzokia | 20:00 |
Castellano | Antzerkia / Teatro

Macbeth Shakespeareren tragedia handietako bat da, merezimendu propioz. Istorio liluragarri bat izateko osagai guztiak ditu: botere gose neurrigabea, gerrak, sorginkeriak, mamuak, amarruak, traizioak eta indarkeria asko. Emaztearen nahiak zapalduta gorengorenera iristeko aukerak eraginda, zintzo itxura duen gizon bat tirano odolzale bihurtuko da eta gaiztakeria horrek paranoiara eta eromenera eramango du, galbidera ezinbestean.

Macbeth se erige por méritos propios como una de las grandes tragedias de Shakespeare. Cuenta con todos los elementos para configurar una apasionante historia: ambición desmedida por el poder, guerras, hechizos, fantasmas, engaños, traiciones y mucha violencia. Nos muestra cómo la perspectiva de llegar a lo más alto, espoleado por los deseos de su mujer, convierte a un hombre aparentemente noble en un tirano sanguinario, y cómo esa maldad acaba conduciendo a la paranoia, la locura e inexorablemente a la perdición.

11

ESZENA DANTZ
Gazteszena (Egia) | 12:00
Dantza

MADERA
DENIS SANTACANA
20 min

*Madera*n, koreografoaren esperientzian bertan inspiratua da dramaturgia, urte asko kanpoan bizi izan ondoren bere sorlekura itzultzen denean. Naturak jatorrira itzultzeko egiten dion deiaren eta hara berregokitzeko zailtasunaren arteko gatazka pertsonala, iraganeko mamuen kontrako borrokan.

En *Madera* la dramaturgia se inspira en la propia experiencia del coreógrafo al regresar a su tierra después de muchos años viviendo fuera. El conflicto personal entre la llamada de la naturaleza, para volver a sus orígenes, y la dificultad de poder adaptarse a ellos, en una lucha contra los fantasmas del pasado.

BLOCK
AMAIA ELIZARAN
15 min

Blokatu, buxatu, galarazi, geldiarazi, oztopatu, bakartu...
Blokeoak galarazi egiten dio norbaiti bere bizitza normal egitea, eta modu bat baino gehiagotan eragin diezaioke.
Gizakiok, aldika, ezin izaten dugu adierazi erraz geure burua, eta zail egiten zaigu gauzen zentzua aurkitzea.

Bloquear, obstruir, impedir, inmovilizar, obstaculizar, aislar...
Un bloqueo impide que una persona continúe su vida con normalidad y puede afectarle de diferentes maneras.
Los seres humanos, a veces, atravesamos etapas en las cuales no podemos expresarnos con fluidez y nos cuesta encontrar el sentido de las cosas.

SHÔJO
MEY-LING BISOGNO
15 min | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria

MANGAtik sortutako pertsonaia. Neskato txiki eta xalo bat, elementu magiko batzuk eta botere fantastikoak dituena. Begi handiok adierazten dute hori, begi-ninien distirak, ikusmira ulertezinen islak, betileen punta beltzek eta argi-burbuilek, bitxiki geldi, lanpara erraldoiak balira bezala, orainaldi beirakaraz iragan arraroa argitzen.

Personaje emergido del MANGA. Una niña pequeña e inocente con ciertos elementos mágicos y poderes fantásticos. Los inmensos ojos lo señalan, con pupilas que brillan con la humedad, reflejos de vistas incomprensibles, picos negros de pestañas y burbujas de luz, que permanecen extrañamente inertes, como lámparas gigantes que iluminan un pasado extraño con su presente vidrioso.

THE PLACE
ALESSIO NATALE
9 min | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria

Bizi dugun garai honetan, bistakoa da espazio falta, helburu atzemanezina da nahi dugun lekua aurkitzea. *The Placek*, egunerokotasunaren bidetik, aurkezten digu gizarte bat non boterea lortzeko borrokak piramidearen erpinean egonarazten baikaitu, non ia beti indartsuenak irabazten baitu ahularen lepotik, eta non batzuk besteokin korapilatuz gorenera iristen baikara.

Vivimos una época donde la falta de espacio es evidente, encontrar el sitio que queremos es una meta inalcanzable. *The Place* representa a través de lo cotidiano una sociedad donde la lucha por el poder nos hace estar en el vértice de la pirámide, donde casi siempre gana el más fuerte por encima del débil, y entrelazándonos unos con otros llegamos a lo más alto.

EL OTRO
CLÉMENCE JUGLET
10 min | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria

Gure identitatea bilatzea eta tinkatzea, gizartean dugun irudiaren garrantzia, eta gure nortasunaren alderdi desberdinak, izatea eta itxurak egitea tarteko. Ni neu izatea, besterik gabe: horrek beldurtzen gaitu gehien. Ikasgaia eman genuen inoren beharrak asetzeko, inoren ikuspuntuaren arabera bizitzeko, onartuko ez ote gintuzten beldurrez.

La búsqueda y la afirmación de nuestra identidad, la importancia de nuestra imagen en sociedad, y las diferentes facetas de nuestra personalidad a través del ser y el aparecer. Simplemente ser yo mismo, es lo que se teme más. Dimos una lección por satisfacer las necesidades de otros, a vivir con arreglo al punto de vista de otras, por miedo de no ser aceptados.

THE MORE YOU DANCE THE MORE YOU GET
EVIE DEMETRIOU

Inglés/Castellano | 20 min | Estreinaldia Estatuan / Estreno en el Estado

Lan honen oinarrian gorputza behartuta erabiltzearen ideia dago, salgai gisa, emakumeen sexu-esplotazioa dela eta. Aurpegirik gabeko norbait agertokian, gorputza behin eta berriz erakustera, saltzera eta birsaltzera behartua. Higidura fisikoaren hizkuntzaz egindako lan honek barnekoitasuna eta umorea konbinatzen ditu, higidura eta soinua, arriskua eta ustekabea.

El trabajo se basa en la idea del uso forzado del cuerpo como un producto para la venta, con referencia a la explotación sexual de las mujeres. Una persona sin rostro en el escenario, que se ve obligada a exponer, vender y revender un cuerpo una y otra vez. Realizado con un lenguaje de movimiento físico, el trabajo combina intimidad y humor, movimiento y sonido, riesgo y sorpresa.

AN ENCOUNTER
JORDI L. VIDAL

20 min | Estreinaldia Estatuan / Estreno en el Estado

An Encounter ikuskizun originala, ikusgarria eta dinamikoa da, eta akrobazia, dantza eta antzerki fisikoa konbinatzen ditu. Bi pertsonaren elkartze samur eta beroa, hunkigarri gertatzen dena irribarre eta ustekabe sorta batean. Elkarrekin lotutako koadro eszenikoek osatzen dute sorkuntza-lan hau.

An Encounter es un espectáculo original, visual y dinámico que combina la acrobacia, la danza y el teatro físico. Un tierno y apasionado encuentro entre dos personas, que emociona en un cóctel de sonrisas y sorpresas. Esta creación se compone de cuadros escénicos interconectados.

LOS AÑOS RÁPIDOS
CHARINY PRODUCCIONES

Victoria Eugenia Club | 16:30 | Castellano | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria | 70 min | Antzerkia / Teatro

Galdu genuen guztitik, malkoak behintzat geratu zaizkigu. Bizitza ziztu batean doa *Los años rápidos*en, eta Secun de la Rosak, xume eta hurbil berriz ere, modu hunkigarrian kontatzen du hori. Bi eszena, hogeita hamar urteko tarteak bereizirik; hirugarren eszena bat, harrigarria, non beste biak batera dauden: aski du hori familiako drama bat kontatzeko. Historia bat gela bakar batera bildua: langileauzo bateko etxe bateko egongela, besaulki maiztu bat, mahaitxoa, lanpara merke batzuk, koinaka eskura eta errezel bat atzealdean... Etxe baten irudi ezaguna: eguneroko infernuarena edo haurtzaroko paradisu galduena, nondik begiratzen den.

De todo cuanto perdimos nos quedan al menos las lágrimas. La vida pasa volando en *Los años rápidos* y Secun de la Rosa, otra vez sencillo y cercano, lo cuenta de forma conmovedora. Apenas dos escenas separadas por treinta años y, una tercera extraordinaria, en la que ambas se solapan, le bastan para narrar todo un drama familiar. Una historia condensada en una única estancia: el salón de un hogar de barrio obrero, una butaca gastada, una mesilla, unas lámparas baratas, el coñac a mano y una cortina de fondo... el reconocible escenario doméstico, según se mire, del infierno cotidiano o de los paraísos perdidos de la infancia.

EL ENJAMBRE
VAIVÉN

Antzoki Zaharra- Fundación SGAE Gunea | 18:30 | 75 min | Castellano | Antzerkia / Teatro

Txikitako lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak ordea ez dira alferrik pasatzen eta elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala; edo bai...
Asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat.

Esaten da erleak direla animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak. Eta dantzan komunikatzen omen dira...

Un grupo de amigas de la infancia acude a una casa rural para celebrar la despedida de soltera de una de ellas. Pero los años no pasan en balde y aunque sientan un vínculo muy fuerte entre ellas, nada es lo que era; o sí...
Lo que a priori iba a ser un fin de semana a lo loco, enloquecerá un poco más si cabe; trapos sucios, cosas que nunca se dijeron, confesiones, alcohol, droga y un enjambre.

Se dice que en el reino animal, las abejas son los seres que mejor se comunican. Y al parecer, se comunican bailando...

ERRITU
KUKAI

Victoria Eugenia Antzokia | 20:30 | 60 min | Dantza

*Erritu*n egin dute topo Kukai Dantzak eta Sharon Fridman koreografo ospetsuak. Bizi-bidaia bat da *Erritu*, bizitzako etapak zeharkatzen baititu pasabideko erritu bakarkako eta kolektiboen bidez, naturarekin eta komunitatearekin loturik. Etapa horiek jaiotzatik kaoseraino doaz, bakardadearen mortuan barrena, harik eta topaketara, maitasunera eta, azkenik, heriotzara iritsi arte. *Erritu*n, bat egiten dute dantza ulertzeko bi moduk. Bi hizkuntzen arteko desberdintasunean dago aberastasuna eta erakarmena.

Erritu supone el encuentro entre Kukai Dantza y el prestigioso coreógrafo Sharon Fridman. Se trata de un viaje vital que atraviesa, mediante ritos de paso individuales y colectivos, los distintos estados de la vida en relación con la naturaleza y con la comunidad. Estados que van desde el nacimiento al caos pasando por el desierto de la soledad, hasta llegar al encuentro, el amor y, finalmente, la muerte. En *Erritu* se funden dos modos de entender la danza. En la diferencia entre los dos lenguajes está la riqueza y el atractivo.

ROMAN ETA JULIETA
BOROBIL

Intxaurrondo K.E. | 20:00 | Euskara | 80 min | Antzerkia / Teatro

Roman ia 80 urteko gizon bat da, eta behea jota dago emaztea hil zaiolako. Agureak menpekotasun fisikoa du, eta hiru semeek txandaka zaintzen dute eguneko hogeita lau orduetan. Hiru hilabeteren ondoren, semeak jota geratu dira, eta egoitza batean plaza bat noiz sortuko zain dauden artean, Julieta kontratatzea erabakitzen dute, paperik gabeko immigrante bat, auzoko parrokoak hala aholkatuta, nahiz eta Romanek uko egin dion beti semeek ez beste inork zaintzeari. Egoera gero eta zailagoa da, eta semeek iraganaren aurrean jarri beharko dute, beren frustrazio eta liskarrekin eta, batez ere, aitaren autoritarismoarekin, zeina orain gainbehera baitoa. Izar bat zeruan nola, halaxe agertuko da maitasuna, baina diru-goseak, harrokeriak, intrantsigentziak, aurreiritziek eta beldurrak galarazi egingo diete izar haren atzetik joatea. Itsutasuna erabatekoa izango da, eta patua nagusituko zaie, tragedietan nagusitu ohi den gogortasunaz.

Roman es un hombre de casi 80 años que está profundamente deprimido por la muerte de su esposa. El anciano sufre dependencia física y sus tres hijos se turnan para acompañarlo las veinticuatro horas.

Después de tres meses, los hijos están agotados. Mientras esperan plaza en una residencia deciden emplear a Julieta, una inmigrante irregular, por consejo del párroco del barrio, a pesar de que Roman siempre se ha negado a que nadie que no sean sus hijos lo cuide. Esta situación, cada vez más límite, irá enfrentando a los hijos con su pasado, con sus frustraciones y rencillas y, sobre todo, con el autoritarismo de un padre en plena decadencia. El amor surgirá como una estrella en la noche, pero la codicia, el orgullo, la intransigencia, los prejuicios y el miedo les impedirán seguirla. La ceguera será total y el destino se impondrá con la contundencia con la que solo lo hace en las tragedias.

12

ROMAN Y JULIETA
BOROBIL

Intxaurrondo K.E. | 10:00 | Castellano | Estreinaldia / Estreno | 80 min | Antzerkia / Teatro

Informazioa martxoaren 11ko programazioan / Información en la programación del 11 de marzo.

LUZ
LASALA

Gazteszena (Egia) | 11:30 | 50 min | Dantza

Itzalpekoaren argitzea. Sakratu denaren iluntasuna.

LUZ bi munduren arteko aurkakotasunean dago oinarrituta: argiaren mundua eta iluntasunaren mundua. Antzezlanean sakratutasuna, araztasuna, leuntasuna, sotiltasuna, hauskortasuna... jorratuko dira; bestetik, zakarkeria, basakeria, ankerkeria... Eta hori guztia, sortutako mundu bakoitzean.

El alumbramiento de lo umbrío. La oscuridad de lo sagrado.

LUZ se basa en la contraposición de dos mundos antagónicos, el mundo de la luz y el mundo de la oscuridad. En la pieza se trata lo sagrado, la pureza, lo delicado, lo sutil, lo frágil... y, por otro lado, lo bruto, lo salvaje, lo bestia... y todo ello, en cada uno de los mundos creados.

© ETA NOWSKI

YO NO ESTOY LOCA
TEATRO PETRA

Victoria Eugenia Club | 13:15 / 16:30 | Castellano | Estreinaldia Europan / Estreno en Europa | 75 min | Antzerkia / Teatro

Emakume bat etxera sartu da eta senarra beste emakume batekin oheratuta aurkitu du. Maitaleak harrituta geratu dira, emakumeak ez du ezer esaten, ez du iskanbilarik ateratzen; aitzitik, afaria prestatzeko jakiak zekartzanez, hara ustekabea!, afaltzera gonbidatzen ditu; senarra eta haren maitalea. Emaztearen erreakzio horren aurrean, esaten den lehen gauza "erotuta dago!" izaten da. Horixe esango dute lagunek, senideek, senarrak berak eta senarraren maitaleak. Baina egoera horretan bakarrik ez diote esango erotuta dagoela; baita beste batzuetan ere, egunean zenbait aldiz, horixe adieraziko diote: bere eskubideak exijituko dituenean, otzan agertzen ez denean, eztabaidari ekiten dionean, bere sexu-apetetan erabakitzen duenean, "ez" esatean, ahotsa altxatzean, egia esateagatik, eta, jakina, borrokatzeagatik.

Una mujer entra a su casa y encuentra a su esposo acostado con otra mujer. Los amantes se sorprenden, la esposa no dice nada, no monta un escándalo; al contrario, como traía la compra para una cena, ¡sorpresa! los invita a cenar: a su esposo y a la amante de él. Lo primero que se dice al saber de la reacción de la esposa es: "¡Está loca!". Lo dirán los amigos, las amigas, los familiares, su propio esposo y la amante de su esposo. Pero, no solo en esta situación le dirán que está loca, también, y varias veces al día, se lo manifestarán: por exigir sus derechos, por no ser dócil, por discutir, por decidir sobre sus gustos sexuales, por decir "no", por alzar la voz, por decir la verdad y, obviamente, por pelear.

ESPEJISMO CABARET
EL ESPEJO NEGRO

Antzoki Zaharra- Fundación SGAE Gunea | 18:00 | Castellano | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria | 90 min | Antzerkia / Teatro

Ikus-entzuleek, ipuineko Alice tolesgabeak bezala, kristala zeharkatuko dute Ispilu Beltzaren sakonenean barrentzeko: mundu iluna, non argia baita nagusi, non izaki dotoreak, lotsagabeak, xamurrak, perbertsoak, bakartiak, probokatzaileak bizi baitira, umore zorrotz trufariz beteriko arimak.

Pertsonaia androgino bitxi bat, ilunbeetatik irtena, hiru marionetistak lagundurik: mundu paralelo batean murgilaraziko gaitu hark, non edozein fantasia edo burugabekeria bihur baitaiteke errealitate.

Una visión desde el otro lado del espejo. El público, cual inocente Alicia, atravesará el cristal adentrándose en lo más profundo del Espejo Negro: un mundo oscuro donde reina la luz, donde residen criaturas elegantes, irreverentes, tiernas, perversas, solitarias, provocadoras, almas llenas de humor corrosivo y burlón.

Un andrógino y extravagante personaje salido de las tinieblas, ayudado por tres marionetistas, nos sumergirá en un mundo paralelo donde cualquier fantasía o disparate puede hacerse realidad.

BENDING THE WALLS
(Fernando Hernando Magadan)
BEYOND (La intrusa)
LAVA – CÍA DE DANZA

Victoria Eugenia Antzokia | 20:00 | Castellano | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria | 75 min (atsedena / descanso) | Dantza

Bending the Walls zorionaren, askatasunaren eta ulertzearen bila gabiltzalarik jasaten ditugun murrizketen eta mugen munduaren araketa bat da: muga fisiko eta psikologikoak, geure baitan eta inguratzen gaituen munduan.

Beyond lanean, bilaketa badaezpadako eta etengabearen esperientzia planteatzen da, bizitzako ibilbidean aurrera bultzatzen gaituen bilaketarena, oroimeneko paisaia emozionaletan barrena. Egoera distopiko disonante bat, ibilia ziurgabetasunaren agertoki bilakatzen duena, etengabe behartzen gaituena geure bizitzako ibilbidea sortzera edo hartaz gogoeta egitera, ohartuki nahiz oharkabean eraikiz goazen paisaiaz.

© marcosGpunto

Bending the Walls es una exploración sobre el mundo de las restricciones y limitaciones en nuestra búsqueda de la felicidad, la libertad y la comprensión: los límites físicos y psicológicos dentro de nosotros mismos y el mundo que nos rodea.

En *Beyond* se plantea la experiencia de una búsqueda incierta y continua, impulsora del trayecto vital a través de paisajes emocionales de la memoria. Una situación distópica, disonante que convierte el recorrido en un escenario de incertidumbre, que nos obliga constantemente a crear o reflexionar sobre nuestro propio itinerario vital, sobre el paisaje que de una manera consciente o fortuita vamos construyendo.

13

© Mikel blasco

COMO UN VIENTO HELADO
TANTTAKA

Intxaurrondo K.E. | 10:00 | Castellano | 75 min | Antzerkia / Teatro

Heriok hiru silaba ditu. Beldurra... Nazka... Arratsaldeko zortziak dira. Tiro hotsa. Neska bat farmazia batetik korrika irteten da. Bizikleta hartu, eta atzera begiratu gabe, pedalei eraginez badoa. Nire aitaren arnasa... Nire oheraino, bost pauso... Tabako usaina. Emakume batek goma bat jartzen du bere autoko ihes-hodian, eta atea ixten du. Norbaitek arriskuan zaudela abisatzen dizu. Poliziaren sirenak entzuten dituzu urruti. Jolastuko gara, eskolan egiten genuen bezala, ea minari gehien nork eusten dion?

Muerte tiene dos sílabas. Miedo... Asco... Son las ocho de la tarde. Suena un disparo. Una chica sale corriendo de una farmacia. Coge la bicicleta y pedalea sin mirar atrás. La respiración de mi padre... Cinco pasos hasta mi cama... El olor a tabaco. Una mujer coloca una manguera de goma en el tubo de escape de su coche y cierra la puerta. Alguien te avisa de que estás en peligro. Las sirenas de la policía se escuchan a lo lejos. ¿Jugamos a ver quién aguanta más el dolor como hacíamos en el colegio?

PIEDRA
CIELO RASO

Gazteszena (Egia) | 11:30 | 56 min | Dantza

Piedra hiru interpreterentzat proposatzen da, erresistentzia, konkista eta porrota arakatzeko bide gisa. Gorputzaren gogortasuna eta hausturaren unea, ustekabeko zerbait balitz bezala harritzen gaituena.

Piedra se propone para tres intérpretes, como un camino para explorar la resistencia, la conquista y el fracaso. La dureza del cuerpo y el instante de fractura que sorprende como algo inesperado.

RETRÓPICA
MARI PAULA

Victoria Eugenia Club | 13:15 / 16:30 | Castellano / Portugués | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria | 45 min | Diziplina anitza / Multidisciplinar

Retrópica dantza antropofagoaren performance bat da. Samba, bossa nova, orpoketa jaten ditu, eta kultura zerbait hermetikotzat daukan ikuspegia hausten du. *Retrópica* emakumea da. Gosea da, sua, plazer muturrekoa ezti huts gisa, ekuatoreko zainetan dariola.

Retrópica es una performance de danza antropófaga. Devora samba, bossa nova, taconeo y rompe con el imaginario que defiende la cultura como algo hermético. *Retrópica* es mujer. Es hambre, es fuego, es el placer extremo en forma de miel pura que escurre aún por las venas del ecuador.

© Lau Ortega

VIENTOS QUE NOS BARRERÁN

SPECTARE

Antzoki Zaharra- Fundación SGAE Gunea | 18:00 | Castellano | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria | 90 min | Antzerkia / Teatro

Juliak alde egin du etxetik. Berak prestatutako janaria duten tupper batzuk, hozkailuan txukun paratuta, horra bere borondatez alde egin duelako froga garbia. Hipotesi horretan oinarrituta egiten du aurrera *Vientos que nos barrerán* antzezlanak: zauriak ixteko prest dagoen familia baten historia. Non da ama? Non da emaztea? Pablok baldarkeriaz hartzen du emazteak alde egin izana. Tita, alaba, familiaren etxera itzuliko da, non oroitzapenak aztarna bihurtzen baitira. Norbaiten bilaketari ekiteko, lehenik norbait hori nor zen ulertzeko saiotik hasi behar da. Eta bidean, aita-alabak, erantzunak aurkitzeko iraganeko irudiak berrinterpretatu ez ezik, helduen arteko harremanak izateko modu berri bat aurkituko dute.

Julia se ha ido de casa. Sólo unos tuppers de comida cocinada por ella misma, depositados ordenadamente en la nevera, son la prueba irrefutable de que su marcha ha sido voluntaria. Bajo esta premisa se desarrolla *Vientos que nos barrerán*, la historia de una familia dispuesta a cerrar heridas. ¿Dónde está la madre? ¿Dónde la esposa? Pablo afronta con torpeza el abandono de su mujer. Tita, la hija, volverá a la casa familiar donde los recuerdos se convierten en pistas. La búsqueda de alguien comienza con el ejercicio de entender quién era realmente ese alguien. Y en el camino, padre e hija no sólo reinterpretarán imágenes del pasado para encontrar respuestas, sino que descubrirán un nuevo modo de relacionarse como adultos.

DUBLINESES

ADOS TEATROA

Victoria Eugenia Antzokia | 20:00 | Castellano | 85 min | Antzerkia / Teatro

Dublin, 1904. Urtero bezala, lagun talde bat elkarrekin afaltzeko bildu da Errege eguneko gauean. Elurra ari du kanpoan. Barruan, etxe-giro dago, musikazaletasuna eta umore ona. Gabriel, anfitrioien iloba, da gonbidatu "ereduzkoa", ordena-gizona, familiaburua eta Grettarekin zoriontsu ezkondua. Dena da akasgabea, baita dekadentea ere, oraindik ere Britainiar Inperioaren mende dagoen Irlandan, baina eragin eta ideologia berrien astindua sumatzen da hala ere. Festa amaitzear dela, kanta soil bat entzuten da, eta Gabrielek, harrituta, ikusten du emaztea hunkitu egiten dela eta negarrari ematen diola. Zer-nolako sekretuak izan ditzake hura bezalako emakume batek bihotzean gorderik?

Dublín, 1904. Como todos los años, un grupo de amigos se reúne la noche de Reyes para cenar. Fuera nieva. Dentro, se respira hogar, gusto por la música y buen humor. Gabriel, sobrino de las anfitrionas, es el invitado "ejemplar", un hombre de orden, padre de familia y felizmente casado con Gretta. Todo es perfecto, aunque decadente, con el trasfondo de una Irlanda todavía bajo el dominio del Imperio Británico, pero ya sacudida por nuevas influencias e ideologías. Cuando la fiesta llega a su fin, suena una sencilla canción y, con sorpresa, Gabriel ve a su mujer conmoverse y abandonarse a un llanto sin consuelo. ¿Qué secretos puede llegar a guardar una mujer como ella en su corazón?

14

UN POYO ROJO
UN POYO ROJO

Intxaurrondo K.E. | 10:00 | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria | 60 min | Antzerkia / Teatro

*Un Poyo Rojo*k gurutzaketa interesgarria dakar dantzaren, kirolaren eta sexualitatearen artean. Gorputz-hizkuntzatik abiatuta, lan honek hizkuntza garaikidearen mugak arakatzen ditu, higidurari eta ondorengo interpretazioei buruz. Probokazioa, geure buruaz barre egiteko eta, horrekin batera, geure osotasuna onartzeko gonbita.

Un Poyo Rojo presenta un interesante cruce entre la danza, el deporte y la sexualidad. Una obra que, a partir del lenguaje corporal explora los límites del lenguaje contemporáneo, respecto al movimiento y sus posteriores interpretaciones. Una provocación, una invitación a reírnos de nosotros mismos y, a su vez, a reconocer nuestra totalidad.

CAMBIANDO EL PASO
COMPAÑÍA CRISTINA GÓMEZ

Gazteszena (Egia) | 11:30 | Castellano | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria | 60 min | Dantza

Etengabe aldatzen dugu pausoa... Bizitzak ezartzen digun erritmoari eusteko, jarritako helmuga batera iristeko, atzean geratutako lagun minari itxaroteko, dena eman genion haren atzetik joateko, geldialdia egin eta ulertzeko.

Continuamente cambiamos el paso. Para alcanzar el ritmo que nos impone la vida, para llegar a una meta propuesta, para esperar al amigo querido que quedó rezagado, para correr detrás de aquél al que dimos todo, para detenernos y entender.

PROMESA DE FIN DE AÑO
LA MALDITA VANIDAD

Victoria Eugenia Club | 16:30 | Castellano | Estreinaldia Europan / Estreno en Europa | 70 min | Antzerkia / Teatro

Gizaki bazterreko bat, Bogota hiriko auzo txiroetako biztanlea, erietxe batean agertu zen 2014an, arreta eske: sexuz aldatzea nahi zuen, berriz ere zakila izatea, 65 urtez emakume gisa bere gorputza saltzera behartuta bizi izan ondoren. Historial kliniko hori abiapuntutzat hartuta, La Maldita Vanidadek Silvanaren historia eraikitzen du, gizon-emakume bat gorputz bortxatu, salgai bihurtuan, sexuz aldatzera behartua 10 urte besterik ez zuenean. **Ikuskizun hau martxoaren 17ra arte luzatuko da.**

Un ser marginal, habitante de una zona deprimida de la ciudad de Bogotá, apareció en 2014 en un hospital llamando la atención porque solicitaba un cambio de sexo, quería volver a tener pene después de 65 años de haber sido obligado a prostituirse como mujer. Con este historial clínico como punto de partida, La Maldita Vanidad construye la historia de Silvana, un hombre-mujer atrapado en su trágico cuerpo abusado, comercializado y obli-

gado a cambiar de sexo cuando él tenía apenas 10 años de edad.
Este espectáculo se prolongará hasta el 17 de marzo.

JULIETAS, ROMEO CIRCO
MARKELINE

Antzoki Zaharra- Fundación SGAE Gunea | 18:00 | 60 min | Zirkua / Circo

Aldaketaren eta dramaren kontzeptuak abiapuntu hartuta, ikuskizun honetan kapela batzuk Shakespearen istorio unibertsala kontatuz joango dira, noren buruan pausatzen diren arabera. Montesco eta Capuleto koruak tirabiran dabiltzate antzina-antzinatik. Haiek dira amodiozko istorio hau eragozten dutenek. Korua kontzientzia da, legea irudikatzen du. Honen aurrean, Romeo eta Julieta gizabanakoaren nortasuna dira, transgresioa. Gorputz-antzerkia, fisikoa eta keinu antzerkia. Zirkuaren hizkuntzarekin kontatutako klasiko bat. Komediatik dramara mugitzen den ibilbidea. Gaztarotik heldutasunerako bidaia.

Los conceptos de cambio y drama inspiran un espectáculo en el que unos sombreros van contando la historia universal de Shakespeare según en la cabeza de quién se posen. El coro de Montescos o Capuletos, eternamente enfrentados, son los que impiden este amor. Este coro es la conciencia, la ley. Frente a ésto, Romeo y Julieta son la personalidad individual, la transgresión. El espectáculo es corporal, físico y gestual. Un clásico contado en lenguaje de circo. Un paseo de la comedia al drama, un viaje de la juventud a la madurez.

EL REY LEAR
ATALAYA TEATRO

Victoria Eugenia Antzokia | 20:00 | Castellano | Estreinaldia Euskal Herrian / Estreno en Euskal Herria | 105 min | Antzerkia / Teatro

El rey Lear antzezlanak herri-ipuin batean du jatorria; nonbait, XII. mendetik gehitu zaio Ingalaterraren historiari. Kronikek diotenez, Lear zaharrak hiru alabek zenbateraino maite zuten jakin nahi izan zuen, gehien maite zuena bere ondorengo izendatzeko asmoz. Bik zurikeria ugari esan zizkioten; gazteenak, berriz, erantzun zion aita zuela eta horregatik maite zuela. Erregeari gutxi iruditu, eta zigortu egin zuen. Denborak eta gertaerek frogatuko zuten, ordea, huraxe zela tronurako duin zen bakarra, eta, azkenean, ahizpekin gerran jardun ondoren, lortu ere lortu zuen hori. Shakespearek zabaldu eta aldatu egiten du bilbea, bere ikuspegia txertatuz. Learren historiarekin batera, Gloucesterren eta haren semeena kontatzen du. Emaitza muturreko esperientzia da, oinazea, eromena eta suntsiketa ankerki eta gozagarririk gabe adierazita.

El rey Lear se basa en un cuento popular que aparece incorporado a la historia antigua de Inglaterra desde el siglo XII. Cuentan las crónicas que el viejo Lear quiso conocer el grado de afecto de sus tres hijas para designar sucesora a quien más le quisiera. Dos se deshicieron en halagos y la menor le contestó que le quería como padre y nada más. Le pareció poco al rey, que la castigó. El tiempo y las peripecias vendrían a demostrar más tarde que era la única digna del trono que, por fin, tras una guerra con las hermanas, consiguió. Shakespeare amplía y transforma la trama, infundiéndole una visión personal. Paralelamente a la propia historia de Lear plasma la de Gloucester y sus hijos. El resultado supone una experiencia extrema de dolor, locura y destrucción expresada crudamente y sin reservas.

PREZIOAK ETA SARRERA SALMENTA
PRECIOS Y VENTA DE ENTRADAS

ABONUAK
ABONOS

Antzoki Zaharra – Fundación SGAE Gunea
Victoria Eugenia Antzokia

OSOA / COMPLETO: %50eko deskontua 4 ikuskizun erosita / 50% de descuento comprando cuatro espectáculos

MURRIZTUA / REDUCIDO: %30eko deskontua 4 ikuskizun baino gutxiago erosita / 30% de descuento comprando menos de 4 espectáculos

Ez dira metagarriak, martxoaren 7ra arte / no son acumulables, hasta el 7 de marzo

ALDEZ AURRETIK
VENTA ANTICIPADA

Martxoaren 7ra arte / Hasta el 7 de marzo:

Gazteszena (Egia) , Intxaurrondo K.E., Victoria Eugenia Club: 10€

Victoria Eugenia Antzokia: 8€ / 12€ /18€

Antzoki Zaharra – Fundación SGAE Gunea– Teatro Principal: 8€ / 10€

dFERIA BITARTEAN
DURANTE dFERIA

Martxoa 8-14 Marzo

Gazteszena (Egia), Intxaurrondo K.E., Victoria Eugenia Club: 12€

Victoria Eugenia Antzokia: 10€ / 15€ / 20€

Antzoki Zaharra – Fundación SGAE Gunea– Teatro Principal: 10€ / 12€

SARRERA SALMENTA
VENTA DE ENTRADAS

VICTORIA EUGENIAKO LEIHATILA
TAQUILLA VICTORIA EUGENIA
Argentinako Errepublika, 2
Tel.943 48 18 18
11:30 –13:30
17:00 etatik ikuskizuna hasi arte
De 17:00 hasta el inicio del espectáculo

ANTZOKI ZAHARREKO LEIHATILA
TAQUILLA TEATRO PRINCIPAL
Kale Nagusia / Calle Mayor, 1
Tel. 943 48 19 70
17:00 etatik ikuskizuna hasi arte
De 17:00 hasta el inicio del espectáculo

GAZTESZENA (EGIA)
Baztan kalea / Calle Baztán, 21
Tel.943 29 15 14
Ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago
Una hora antes del inicio del espectáculo

INTXAURRONDO K.E.
Felix Gabilondo plaza, 1
Tel: 943 27 93 43
Ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago
Una hora antes del inicio del espectáculo

DESKONTUAK
DESCUENTOS

- %10

%10eko deskontua kolektibo hauentzat: Descuento del 10% para los siguientes colectivos:

- **Donostia Kultura Bazkideak**
  Socios / as Donostia Kultura
- **Langabetuak** / Personas en paro
- **30 urtetik beherako gazteak**
  Jóvenes menores de 30
- **Pentsiodunak eta 65 urtetik gorako pertsonak**
  Pensionistas y mayores de 65

> Deskontu hau leihatiletan bakarrik gauzatuko da
Este descuento se llevará a cabo solo en las taquillas

ORDU GAZTEA / HORA JOVEN

30 urtetik beherakoek sarrerak 3 euroan erosteko eskaintza emanaldia hasi aurreko ordu erdian. Entradas a 3 euros para menores de 30 años media hora antes del inicio del espectáculo.

Info+: Aretoetako leihatiletan / en las taquillas de los espacios.

DESKONTUAK EZ DIRA METAGARRIAK
DESCUENTOS NO ACUMULABLES

Informazio eguneratua / Información actualizada:
www.dferia.eus
www.donostiakultura.eus

donostiakultura.eus/sarrerak

dFERIA DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

PROGRAMAZIOA / PROGRAMACIÓN

9	**LOS CUERNOS DE DON FRIOLERA,** MORFEO TEATRO	AZ - Fundación SGAE Gunea	20:00	100 min
	SHARING HOME, DENIS SANTACANA	EGIA	20:00	60 min
10	**MACBETH,** ARRIAGA ANTZOKIA	VEA	20:00	
11	**ESZENA DANTZ,** KONPAINIA UGARI / VARIAS COMPAÑÍAS	EGIA	12:00	108 min
	OUT OF THE BLUE II, LARUTAN	KUTXA KULTUR PLAZA TABAKALERA	14:30	11 min
	LOS AÑOS RÁPIDOS, CHARINY PRODUCCIONES	VEA CLUB	17:00	70 min
	EL ENJAMBRE, VAIVÉN	AZ - Fundación SGAE Gunea	18:30	75 min
	ROMAN ETA JULIETA, BOROBIL	INTXAURRONDO	20:00	80 min
	ERRITU, KUKAI DANTZA	VEA	20:30	60 min
	FABIOLO CONNECTION: MATCH TO THE FUTURE, RAFAEL MAZA	CONVENT GARDEN	23:30*	60 min
12	**ROMAN Y JULIETA,** BOROBIL	INTXAURRONDO	10:00	80 min
	LUZ, LASALA	EGIA	11:30	50 min
	YO NO ESTOY LOCA, TEATRO PETRA	VEA CLUB	13:15 16:30	75 min
	ESPEJISMO CABARET, EL ESPEJO NEGRO	AZ - Fundación SGAE Gunea	18:00	90 min
	BENDING THE WALLS, BEYOND, LAVA	VEA	20:00	75 min
	ESCÁPATE-ATRO. LA LEYENDA DEL DEVENGARI, METIDOS EN OBRAS	CONVENT GARDEN	23:30*	75 min
13	**COMO UN VIENTO HELADO,** TANTTAKA	INTXAURRONDO	10:00	75 min
	PIEDRA, CIELO RASO	EGIA	11:30	56 min
	RETRÓPICA, MARI PAULA	VEA CLUB	13:15 16:30	45 min
	VIENTOS QUE NOS BARRERÁN, SPECTARE	AZ - Fundación SGAE Gunea	18:00	90 min
	DUBLINESES, ADOS TEATROA	VEA	20:00	85 min
	MADAME SEÑORITA: QUEST!ON, PAULA VALLUERCA	CONVENT GARDEN	23:30*	45 min
14	**UN POYO ROJO**, UN POYO ROJO	INTXAURRONDO	10:00	60 min
	CAMBIANDO EL PASO, CRISTINA GÓMEZ	EGIA	12:00	60 min
	PROMESA DE FIN DE AÑO, LA MALDITA VANIDAD	VEA CLUB	16:30	70 min
	JULIETAS, ROMEO CIRCO, MARKELIÑE	AZ - Fundación SGAE Gunea	18:00	60 min
	REY LEAR, ATALAYA TEATRO	VEA	20:00	105 min
	UNA INVESTIGACIÓN PORNOGRÁFICA, LÍATE	CONVENT GARDEN	23:30*	80 min

***Akreditatuentzako saioa** / Sesión para acreditados

VEA: Victoria Eugenia Antzokia / **AZ:** Antzoki Zaharra - Teatro Principal / **EGIA:** Gasteszena
VEA CLUB: Victoria Eugenia Antzokia Club / **INTXAURRONDO:** Intxaurrondo K.E./
CONVENT GARDEN: Convent Garden-Cripta